

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa



Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, Berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa

Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak

Heziketa-modulu hau **APF – Associação para o Planeamento da Família** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: Zein da zure jarrera?	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	6
• Jarraibideak	9
2. jarduera: Ahalduntze Tunela	10
• Testuingurua	10
• Gidoia	10
• Jarraibideak	14
3. jarduera: Nor da komunikatzailerik onena?	15
• Testuingurua	15
• Gidoia	15
• Jarraibideak	16
Saioaren egitura	17
Moduluen zerrenda	19

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Modulu honen oinarria taldearen presioaren aurreko ahalduntzea eta auto-baieztapena dira. Xede du nabarmentzea zer nolako abantailak dituen asertiboa eta enpatikoa izateak, taldearen edo beste pertsona batek baztertzeko beldurragatik gauzak gogoz kontra egitearen aldean. Gainera, pribilegioa eta diskriminazioa ulertzea sustatzen du.

2. Gai nagusiak

- Komunikazio asertiboa
- Enpatia
- Entzumen-gaitasunak
- Eztabaidatzeko eta argudiatzeko gaitasunak
- Taldearen presioa taldearen laguntzaren aurrean
- Genero-estereotipoak
- Ahalduntzea
- Parte-hartzea
- Erabakiak hartzea
- Pribilegioa
- Diskriminazioa

3. Gako-hitzak

Ahalduntzea • Komunikazioa • Asertibotasuna

4. Ikasketa-xedeak

Ahaldunduago sentitzea eta modu eraginkorragoan komunikatzea honako hauen bidez:

- Hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren mezuak modu kontzienteagoan erabiliz
- Entzute-gaitasunak eta argudiatze-gaitasunak garatuz
- Elkarrenganako harreman errespetagarriak sustatuz ikasgelan.
- Pribilegioa eta diskriminazioa ezagutuz
- Ahalduntze sustatzeko moduak zerrendatuz
- Erabakiak hartzea eta parte-hartzea sustatuz

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Helburu-adina	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Zein da zure jarrera?	6-8 urte 9-12 urte	45 minutu	- Gela handi hutsa - Adierazpenen zerrenda (1, 3-4 parte-hartzaileko) - Zintza itsasgarria “Onartu” eta “Ez onartu” ikurrak - Paperezko arbela - Paperezko arbelaren markatzaileak - A4 papera - Boligrafoak - Hautazkoa (paperezko arbelaren ordezt): ordenagailua, datuak bistaratzekoarekin eta USB adierazpenekin	☆☆☆
2	Ahalduntze Tunela	6-8 urte 9-12 urte	45 minutu	Gela handi hutsa	☆☆☆
3	Nor da komunikatzaile onena?	9-12 urte	45-60 minutu	- Pertsonaia ezagunen argazkiak (1, 3.4 parte-hartzaileko + bakoitzaren 3 kopia) - Blue tag-a (edo itsasgarria) - Paperezko arbela - Paperezko arbelaren markatzaileak	☆☆☆

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

1. jarduera Zein da zure jarrera?² ☆☆☆



Jardueraren iraupena guztira
45 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 20
Segimendua: 15



- Materialak**
- ☐ Gela handi hutsa
 - ☐ Adierazpenen zerrenda (1, 3-4 parte-hartzaileko)
 - ☐ Zintza itsasgarria
 - ☐ “Onartu” eta “Ez onartu” ikurrak
 - ☐ Paperezko arbela
 - ☐ Paperezko arbelaren markatzaileak
 - ☐ A4 papera
 - ☐ Boligrafoak
 - ☐ Hautazkoa (paperezko arbelaren ordezt): ordenagailua, datuak bistaratzekoarekin eta USB adierazpenekin



Helburu-adina
6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua **da parte-hartzea sustatzea, eta bitartean entzute- eta argudiatze-gaitasunak garatzea**. Parte-hartzaileek posizio fisiko bat hartuko dute gelan, eta gero beren iritziak azalduko eta defendatuko dituzte.

² Europako Kontseiluaren *Compasito* eskuliburutik (192. or.) egokitua.

→ GIDOIA



A Gela bi zatitan banatuko dugu, eta "ADOS" eta "EZ ADOS" ikurrak jarriko ditugu amaieran. Parte-hartzaile gazteagoen kasuan, hitzezkoak ez diren ikurrak erabil ditzakegu (adibidez, Berdea / Gorria; Irribarretsua / Ez irribarretsua).



B Eztabaidarako adierazpenak idatziko digu paperezko arbelean, bakoitza aparteko orri batean, eta lerro batean jarriko ditugu gela erdian. Parte-hartzaile gazteagoen kasuan, irudi grafiko bat gehitu ahal diogu adierazpen bakoitzari. Gelan ikusgaitasun ona badago, paperezko arbela erabili ordez, eztabaidarako adierazpenak gorde ditzakegu.



C Parte-hartzaileei esango diegu jardueraren helburua dela gai garrantzitsu baten gaineko iritziz pertsonalak partekatzea: adierazpen bat irakurtzen dugun bakoitzean, parte-hartzaileek, banaka erabakiko dute adierazpen horrekin bat egiten duten edo ez, eta gero, dagokion "Ados/Ez ados" ikurra dagoen gelako alderdira joan beharko dira.

Helburua da gai bakoitzaren gainean eztabaidatzea eta

- 1) konbentzitzeko moduan argudiatzea;
- 2) arretaz entzutea; eta
- 3) iritziz eta jarreraz aldatzea.

Arauak:

- Inork ezin dezake hitz egin denek jarrera bat hartzen duten arte.
- Adierazpenarekin zenbat eta adostasun edo desadostasun handiagoa izan, orduan eta urrutirago izango zara lerrotik.
- Inor ezin daiteke erdiko lerroan geratu; baina ezin baduzu erabaki edo galderaren baten gainean nahasmena sentitzen baduzu, erdi partean izan zaitezke, alde batean edo bestean.



D Lehen adierazpena erakutsiko diegu parte-hartzaileei eta ozen irakurriko dugu; ondoren, parte-hartzaileei galdetuko diegu zer pentsatzen duten erabakitze eta posizio bat hartzeko.



E Itxaron egingo dugu denek posizio bat hartzen duten arte; ondoren, posizio bietako banakoei galdetuko diegu zergatik hartu duten erabaki hori. Eztabaidatzeko arrazoizko denbora-tartea eman ondoren, posizioa aldatu nahi dutenei hori egiteko baimena emango diegu. Haietako askok posizioa aldatuko balute, galdetuko diegu ea zer argudiok aldarazi dieten iritziz. Prozesu hori jarraituko dugu adierazpen guztietan. Adierazpen bakoitzeko eztabaida-denbora mugatua izan behar da; horrela, jarduera ez da luzeegia izango.



Parte-hartzaileak –haurrik gazteenak bereziki– adi egon daitezen, ariketen bidez edo galderak eginez motibatu ditzakegu.

Adierazpenen adibidea:

- Haur guztiek, baita txikienek ere, beren iritzia azaltzeko eskubidea dute beren bizitzari eragiten dioten gaien gainean.
- Haurrek ez dute eskubiderik familiaren erabaki-hartzeetan; familiek dakite ondoen zer den onena haientzat.
- Haur baten gurasoak banatuta edo dibortziatuta badaude, prozesu legalean haiek dituzten ikuspegiak azaltzeko eskubidea du haurrak.
- Haur nagusiagoek baino ezin dute parte hartu beren bizitzari eragiten dieten erabakiak hartzen.
- Mutilak hobeak dira erabakiak hartzen neskak baino.
- Mutilek eta neskek eskubide berekin parte har dezakete familian erabakiak hartzean.
- Ez du zentzurik hurrei eskatzea azaltzeko zer ikuspuntu duten eskolako gaien gainean.
- Haur guztiek ez dute eskubide bera gizartean parte hartzeko; haur pobreek ezin dute besteek adinako aukerarik izan.
- Legearekin arazoak izan dituzten haurrek erabakiak hartzeko edozer prozesutan parte hartzeko eskubidea galtzen dute.
- Eskolan parte hartzeak esan nahi du ikasgelan asko hitz egiten dela.
- Eskolan parte hartzeak esan nahi du nota onak ateratzen direla.
- Haur orok parte har dezake eskolan eskubide berekin, kontuan hartu gabe gizarte maila, nazionalitatea, etnia, erlijioa, gaitasun fisikoa eta generoa.

→ JARRAIBIDEAK

Eztabaidak egingo ditugu, honako galdera hauek eginez:



- Gustukoa izan al duzu ariketa?
- Zaila edo erraza izan al da jarrera bat hartzea?
- Zaila edo erraza izan al da argudiatzea?
- Zure posizioa aldatu duzu inoiz? Hala bada, zerk eragin dizu aldaketa?
- Zer da garrantzitsuagoa: gure lehenengo iritzira atxikitzea edo iritiz aldatzeko gai izatea?
- Adierazpen batzuk beste batzuk baino zailagoak izan al dira? Hala bada, zein izan dira zailagoak? Zergatik, zure ustez?
- Adierazpen batzuek oraindik zalantzak sortzen al dizkizute? Hala bada, zein adierazpen dira horiek?

Horrez gain, **jarduera hori komunikazio-gaitasunekin lot dezakegu**, honako galdera hauek eginez:

- Zein dira komunikazio mota garrantzitsuenak?
(adibidez, hitzezkoa eta hitzezkoa ez den komunikazioa)
- Zein dira komunikazio-prozesuaren elementu nagusiak?
(adibidez, bidaltzailea, hartzailea, mezua)
- Zer da komunikazio asertiboa?
(adibidez “nola”, “non” eta “noiz” aukeratzen duzun komentatzea agian garrantzitsuagoa da “zer” esaten duzun baino)
- Zer da komunikazio enpatikoa?
(adibidez, ez epaitzea, gehiago entzutea hitz egin ordez)

Jarduera **ahalduntzearekin lot dezakegu, baita parte hartzeko eskubidearekin ere**, honako galdera hauek eginez:

- Gai al zara erabakiak hartzen parte hartzeko?
(adibidez, zure familian, ikasgelan, eskolan, komunitatean)
- Imajinatu al ditzakezu parte hartu dezakezun beste eremu batzuk?
- Zure ustez, parte hartzeko eskubidea zergatik da garrantzitsua haurrentzat?

Nabarmenduko dugu parte hartzea haur ororen eskubide garrantzitsu bat dela, eta ondoren, Haurren Eskubideen Konbentzioaren (HEK) 12. artikulua irakurriko dugu (1989)³.

³ 12. artikulua, haurren iritzia errespetatzeari buruzkoa “Helduek zuri eragiten dizuten erabakiak hartzen dituztenean, gertatu beharko litzatekeenaren gaineko zure iritzia askatasunen adierazteko eta zure iritzia kontuan har daitezen eskubide osoa duzu” (CRC haurrentzat egokitutako bertsioa; Europako Kontseiluaren *Compasito* eskuliburua, 296. or.).

2. jarduerak Ahalduntze Tunela ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 15
Egitea: 20
Segimendua: 10



Materialak

□ Gela handi hutsa



Helburu-adina

6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua da **komunikazio positiboak eta negatiboak** (hitzezkoak eta ez hitzezkoak) **pertsona baten autoestimuan eta autonomian izan dezakeen eragina lantzea**, eta taldearen presioak taldearen laguntzaren aurrean izan ditzakeen eraginak nabarmentzea.

Parte-hartzaileak giza tunel batetik igaroko dira, non ahaldun-gabetu edo ahaldundu daitezkeen, taldeak beren sinesmen pertsonalak hitzez defendatzen edo zalantza jartzen dituelako.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu gustuko dituzten edo izan nahiko lituzketen bi gaitasun identifika ditzatela, banaka, esaterako:

- Onak direla sentitzen duten gauza bat, hau da, gaitasun bat izateaz harro daudenean; esaterako, "Bizikletan ibiltzen ona naiz".
- Txarrak direla sentitzen duten gauza bat, hau da, hobetu nahiko luketen trebetasuna; esaterako, "Txarra naiz dantzan egiten".



Parte-hartzaileei eskatuko diegu binaka jartzeko, ahal dela lanerako eroso sentitzen diren norbaitekin. Gero, bikoteko kideei galdetuko diegu erabaki dezatela zein den "A" eta zein "B", eta beren gaitasunak parteka ditzatela bi txandatan (lehenik "A"-k hitz egingo du eta "B"-k entzun, eta alderantziz). Nabarmenduko dugu gauzak partekatzen ari diren bitartean, "entzuleek" ez hitzezkoa den komunikazioa erabiliko dutela soilik; aitzitik, partekatzea amaitzen dutenean, "entzuleek" emandako laguntza guztia adierazi beharko dute hitzez, honako zer bait esanez argi eta garbi:

- "Benetan txundigarria zara! Onena zara!" (gaitasunaren erantzun moduan)
- "Badakit egin dezakezula! Ez etsi! Hemen nago zuretzat!" (erronkaren erantzun moduan)



Gero gelan zehar ibiliko gara eta bikoteak adoretuko ditugu elkar goraipatu dezaten gogotsu; horretarako, denbora bat emango dugu, bikoteko bakoitzak eman dezakeen goraipamen onena eman ahal izateko prestatzeko.



Hurrengo fasean, parte-hartzaileei eskatuko diegu "giza tunel" bat sortzeko, erantzun positiboa eta negatiboa esperimentatu ahal izan dezaten. Giza tunel tinko eta irmo bat sortzeko, bikoteko kideei eskatuko diegu esku biak eutsi ditzatela elkarri begira dauden bitartean, eta bikote guztiei eskatuko diegu elkarren ondo-ondoan jartzeko (hau da, "tunela" eratuz).



Ondoren, parte-hartzaileei eskatuko diegu tunelaren barruan sartzeko, banan-banan, eta honako jarraibideak emango dizkiegu:

Jarraibideak

- Hau giza tunela da, eta lagunduko dizu ulertzen zer nolako eragina duen ahalduntzeak eta komunikazio positiboak, edo horren gabeziak
- Tunelaren barrura joateko eskatuko dugu, hitzezko mezu bat adierazten den bitartean
- Lehenik, "A" kideak sartuko dira tunelaren barruan, eta ondoren "B" kideak sartuko dira
- Tunel barruan banaka sartuko dira beti
- Tunelak hitzez elkarreragiten du zurekin, bai era positibo batean zein negatibo batean ere
- Txanda bakoitzean, jarraibide zehatzak emango dira esan beharrekoaren gainean
- Tunel barruan urratsez urrats eta poliki-poliki sartu behar da, ezin daiteke korrika egin
- Giza tunela osatzen duen jendearen zeregina hitzezko mezuak adieraztea da, ozen eta argi, txanda bakoitzean emandako jarraibideen arabera
- Giza tunela osatzen dutenek inoiz ezingo dute fisikoki ukitu tunel barrura sartu duten pertsona
- Tunel barrua zeharkatzen duzun bitartean, zure bikotekidea zure zain egongo da tunel amaieran, ongietorria emateko
- Ongietorria ematen dizun bitartean, zure bikotekidea eta beste guztiek isilik egon behar dute; une horretan, soilik hitzezkoak ez diren interakzioak baimenduko dira (begirada, besarkada, bostekoa, irribarrea eta abar)
- Tunel amaieran bikotekidearekin bat egiten duzunean, tunel amaieran geratuko zara eta taldeko gainerakoekin lerrotatuko zara (berriz ere "tunela egiteko")
- Banan-banan, bikoteak tunelaren aurretik tunelaren amaierara arte mugituko dira, etengabe txandaka
- Tunela "A" kideek zeharkatu ondoren, "B" kideek zeharkatuko dute



F

Jarduera hasiko dugu lehenengo txandan erabili diren jarraibide berak ematen (hau da, oinez zeharkatuko duenarentzako eta tunelarentzako adorea ematen eta/edo kentzen). Banan-banan lagunduko diegu bikoteei tunelaren aurretik tunelaren amaierara mugitzeko, etengabeko erritmo txandakatzailan. Parte-hartzaile bat tuneletik kanpo dagoen bakoitzean, elkarrekin biltzeko denbora utziko diegu, aberasgarria eta esanguratsua izan dadin.

Hainbat txanda mota antola ditzakegu. Hona hemen adibide batzuk:

1. TXANDA (Gaitasuna eta Adoregabetzea) – Taldearen presioa huts egiteko

- Parte-hartzaileek ondo hitz egiten dute beren buruaren gainean (adibidez, "Txirrindulari ona naiz! Benetan txundigarria naiz!")
- Giza tunelak adorea kenduko dio (adibidez, "Oso txarra zara! Barregarria zara! Lotsatu egin beharko zenuke! Ez jarraitu! Ez duzu inoiz ere lortuko!")

2. TXANDA (Gaitasun eza eta Adoretzea) – Taldearen laguntza arrakasta lortzeko

- Parte-hartzaileek gaizki hitz egingo dute beren buruaren gainean (adibidez, "Oso gaizki egiten dut dantzan! Ez dut gehiago jarraituko! Ez dut inoiz ere lortuko!")
- Giza tunelak adorea emango die (adibidez, "Izugarria zara! Zure estiloa maite dut! Pixka bat gehiago praktikatu behar duzu soilik! Mugimendu batzuk irakatsi ahal dizkizut! Lagunduko dizut! Hemen izango nauzu beti zuri laguntzeko! Zuregan fedea dut! Ez etsi! Ziur nago lortuko duzula!")

3. TXANDA (Gaitasuna eza eta Adoregabetzea) – Taldearen presioa huts egiteko

- Parte-hartzaileek gaizki hitz egingo dute beren buruaren gainean (adibidez, "Oso gaizki egiten dut dantzan!")
- Giza tunelak adorea kenduko die (adibidez, "Oso txarra zara! Barregarria zara! Lotsatu egin beharko zenuke! Ez jarraitu! Ez duzu inoiz ere lortuko!")

4. TXANDA (Gaitasuna eta Adoretzea) – Taldearen laguntza arrakasta lortzeko

- Parte-hartzaileek beren buruaren gainean ondo hitz egiten dute (adibidez, "Txirrindulari ona naiz! Benetan txundigarria naiz!")
- Giza tunelak adorea emango die (adibidez, Izugarria zara! Zutaz oso harro nago! Hemen izango nauzu beti zuri laguntzeko! Segi aurrera!")

Txanda bakar bat egiteko debora badugu soilik, "adoretze" txanda aukeratuko dugu. Horrez gain, honako hau ziurtatuko dugu:

- "adorea kentzeko" txanda bakoitzaren ondoren, "adoretzeko" txanda bat egingo da
- saioaren azkeneko txanda adoretzekoa izango da
- *bullying*-a jasandako parte-hartzaileek adoretzeko txandak baino ez dituzte jasoko taldearen eskutik

Aldaketa:

Funtsezko gaitasun bati ekin ordez, funtsezko identitate bati ekin diezaiokegu, hau da, parte-hartzaile bakoitzari eskatu ahal diote tunela zeharkatu dezatela beren izena modu errepikakorrean adieraziz (adibidez, "Sara naiz"). Orduan, giza tunelak erantzun egingo du. Hona hemen lau balizko txanda.

1. TXANDA (Adoregabetzea)

- Giza tunelak parte hartzailearen identitatea arriskuan jarriko du, haren izena ukatuz (adibidez, "Ez zara Sara, ikasle bat zara soilik", "Ez zara Sara, Sara izenekoak atsegingarriak dira!")

2. TXANDA (Adoretzea)

- Giza tunelak parte-hartzailearen identitatea berrindartuko du, haren izena errepikatuz eta egiazko ezaugarri positiboak emanez (adibidez, "Sara, txundigarria zara!", "Sara, zer nolako irribarre ederra duzun!", "Sara, maite zaitut!")

3. TXANDA (Adoregabetze erabatekoa)

- Giza tunelak parte-hartzailearen identitatea jarriko du arriskuan, soilik "EZ" errepikatzen etengabe (adibidez, "Ez, ez, ez...")

4. TXANDA (Adoretze erabatekoa)

- Giza tunelak parte-hartzailearen identitatea berrindartuko du, soilik "BAI" errepikatzen etengabe (adibidez, "Bai, bai, bai...")

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileei eskatuko diegu esertzeko eta eztabaidatzeko, honako galdera hauek eginez:



- Nola sentitu zara?
- Zer erakutsi dizu ariketa honek?
- Garrantzitsua al da besteak entzutea? Hala bada, zenbateraino?
- Besteak esaten dutenak zure izaerari eragiten al dio? Hala bada, zenbateraino?
- Zer da komunikazio negatiboa? Eman adibideak (hitzezkoak eta ez hitzezkoak)
- Zer da komunikazio positiboa? Eman adibideak (hitzezkoak eta ez hitzezkoak)
- Zein da zure joera nagusia, komunikazio positiboa edo negatiboa egitea? Zergatik? Negatiboa bada, nola alda dezakezu?
- Gogoeta pertsonala: erantzun positibo edo negatibo gehiago jasotzeko joera duzu? Norengandik?
- Nola sentiarazten zaituzte? Negatiboak badira, nola uste duzu alda ditzakezula?
- Zer da, zure ustez, errazagoa, azpiratzailea izatea edo laguntzailea izatea? Suntsitzea ala eraikitzea?
- Nola egin diozu aurre adoregabetzen zaituztenean eta zure eguneroko bizitzan babesten ez zaituztenean?
- Zer da desahalduntzea? Eman adibideak (norberak sortuak edo beste batek sortuak)
- Zer da ahalduntzea? Eman adibideak (norberak sortuak edo beste batek sortuak)
- Desahalduntutako jendeak bere burua ahaldundu al dezake? Hala bada, nola?
- Ahalduntutako jendeak beste batzuk ahaldundu al ditzake? Hala bada, nola?

Jarduera honek nabarmentzen du zein garrantzitsua den inguruan jende laguntzailea eta adoretua izatea, eta aipatzen du norberaren ardura dela ingurune aberasgarriak aukeratzea. Era berean, nabarmentzen du garrantzitsua dela besteei laguntzea. Lankidetzeta eta adorea sentitzea eguneroko bizitzan –epaiketaren eta adoregabetzearen orde–, funtsezko faktorea da arrakasta izateko, eta autoestimua eta ekiteko autonomia handitzen ditu.

Azken finean, bestea eta geure burua tratatzen dugun moduaren gaineko ardura dugu. Besteak tratatzen ditugun moduak erabateko eragina izan dezake haien ongizatean, baita gurean ere. Aldi berean, besteak tratatzen gaituzten moduak erabat eragin dezake gure ongizatean. Oso garrantzitsua da bestea entzutea eta iritziz aldatzeko, ikasteko eta eboluzionatzeko gai izatea. Aldi berean, garrantzitsua da pentsamendu kritikoa garatzea ere, kontuan izanik nola bereizi behar diren erantzun eraikitzailea eta erantzun negatiboa, azpiraketa identifikatu ahal izateko eta zapalketari aurre egin ahal izateko. Besteari laguntzeko, bestea goraipatzeko eta besteari adorea emateko enpatia eta adimen emozionala behar dira, eta gaitasun horiek komunikazio positiboaren eta ahalduntzearen oinarrian daude.

3. jarduera Nor da komunikatzaile onena? ★★



Jardueraren iraupena guztira
45-60 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 20-35
Segimendua: 15



Materialak

- ☐ Pertsonaia ezagunen argazkiak (1, 3.4 parte-hartzaileko + bakoitzaren 3 kopia)
- ☐ Blue tag-a (edo itsasgarria)
- ☐ Paperezko arbela.
- ☐ Paperezko arbelaren markatzaileak



Helburu-adina
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua da **ulertzea zerk egiten duen komunikatzaile bat ona izatea; eta horretarako**, hainbat hitzezko eta ez hitzezko komunikazio-adierazpenak aztertuko dira.

→ GIDOIA



A Bat egingo dugu parte-hartzaileekin zirkulu batean, parte-hartzaileei esateko jarduera horretan zehar pertsonaia ezagun batzuk gonbidatuko dituztela komunikatzaile ona izateko zer behar den aurkitzeko.



B Parte-hartzaileei eskatuko diegu pentsatzeko zer behar den komunikatzaile ona izateko; eta horretarako bi komunikazio mota nagusien (hau da, hitzezkoaren eta ez hitzezkoaren) gaineko informazio azkarra emango diegu, eta beren ideiak paperezko arbeleko orri batean jasoko dituzte.



C Ondoren, pertsonaia ezagunen, pertsonaia publikoen eta marrazki bizidunetako pertsonaien hainbat irudi zabalduko ditugu lurrean, zirkuluaren barruan. Pertsonaia ezagunak aukeratzean, ziurtatuko dugu dibertsitatea sustatuko dutela, bereziki generoari eta komunikazio-estiloari dagokionez (adibidez, enpatikoa, oldarkorra, umoretsua, begirada bilatzen duena edo saihesten duena, gorputz-kontaktua bilatzen duena edo saihesten duena). Hona hemen pertsonaia ezagun batzuen adibideak.

- **Nazioarteko pertsonaia ezagunak:** Cristiano Ronaldo; Miley Cyrus; Justin Bieber; Oprah Winfrey; Donald Trump; une horretako haurrentzako telebistako aurkezleak/aktore gizonak eta emakumeak (adibidez, Hannah Montana)
- **Estatu mailako pertsonaia ezagunak:** telebista-aurkezle famatua; emakume edo gizon aktorea; atleta; komikoa; politikaria/presidentea.
- **Une horretako marrazki bizidunetako pertsonaiak** (adibidez, Lady Bug, Boo, Hiccup, Shrek, Donkey, Cruella De Vil, Homer Simpson, Garfield, Snow White, Zazpi lputxak).



→ JARRAIBIDEAK

Eztabaidak egingo ditugu, honako galdera hauek eginez:



- Gustukoa izan al duzu ariketa?
- Erraza edo zaila izan al da? Zergatik?
- Zertarako balio du komunikazioak?
- Zer ezaugarrik egiten du pertsona bat komunikatzaile ona izatea? Eman adibideak (hitzezkoak eta ez hitzezkoak)
- Zer ezaugarrik egiten du pertsona bat komunikatzaile txarra izatea? Eman adibideak (hitzezkoak eta ez hitzezkoak)
- Zure ustez zu komunikatzaile ona al zara? Hala bada, zergatik? Hala ez bada, zer egin dezakezu hobetzeko?
- Garrantzitsua al da komunikatzaile ona izatea? Hala bada, zein dira abantailak? Eta desabantailak?
- Nahi duena adierazten dakien pertsona bat, ahaldunduta dago, zure ustez?
- Nahi duena adierazten dakien pertsona bat, beste pertsona batzuk ahalduntzen ditu? Nola?

Moduluaren izena: Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna:_____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ **Iraupena:** _____

Aukeratutako jarduerak:_____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

[illegible]

MODULUEN ZERREND

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 **Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak**
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra



Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



AIDOS
ASSOCIAZIONE ITALIANA
DONNE PER LO SVILUPPO



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua